

## MUGI GAITEZEN INDARKERIA SEXISTAREN AURKA

Bai Euskal Herrian bai munduko beste hainbat tokitan, emakumeen aurkako indarkeriak **lehen mailako arazo sozial, politiko eta kulturala** izaten jarraitzen du. Generoen arteko botere harremanak izateak eragiten du arazoa eta gizonezkoek emakumeen gainean eratzten dituzten zapalkuntza harremanen emaitza da. Indarkeria horren ondorioak dira emakumeen herritartasuna gauzatzeko eragozpenak eta gure gorputzen gaineko kontrola.

Emakumeen aurkako indarkeriak ez du mugarik, **egiturazkoa** da, adierazteko **forma eta esparru mota asko** ditu, eta makineria sozial, politiko, kultural, juridiko eta ideologiko osoan dago presente. Gure aurka, **emakumeak izate hutsarengatik**, eragindako indarkeriaren adierazpen argiak eta, batzutan, ez horren argiak zerrendatzea beharrezkoa da, bikote harremanen barruko hiperindarkeriaren kasuak soilik erdigunean jartzeak emakumeen aurkako beste indarkeria batzuk itzalean uzten baititu:

Sexu indarkeria; psikologikoa; polizia etxeetan eta kuarteletan atxilotutako emakumezkoek hamaika aldiz salaturiko tratu txarrak eta torturak; emakume etorkinek jasaten dituzten erasoak, salatu ezin dituztenak justiziarako biderik ez dutelako; emakumeen gutxiatea; emakume langileak jazartzen dituzten nagusi eta lankide gizonezkoak, lotsagabeki xantaia egiten dietenak; indarkeria jokaerak justifikatze aldera, emakume erasoak probokatzailatzat salatzen dituzten epaile eta fiskalak; gizonezkoek baino soldata txikiagoak jasotzen dituzten emakume langileak, lan txarrenak egitera behartuak; zaintze eta ugaltze lanetan sarturiko milioika ordu, ez maila ekonomikoan, ezta sozialean ere aitorturik ez daudenak eta gizarte eskubideak sortzen ez dituztenak; "beren" emazteak haien sakelako bidez edo janzteko edo jokatzeko eta erlazionatzeko moduz kontrolatzen dituzten senargaiak, bikotekideak edo amoranteak; historian, borroketan eta errebindikazioetan emakumeek utzi duten ondarea sistematikoki ezkututzen duen hezkuntza hartzen duten milioika gazte, ikasgelan sexu eta generoen rol politikoki "egokiak" bereganatzen dituzten horiek; emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea, erakundeek beren eginkizun politikoan sartzten ez dutena eta, gainera ez dute indarkeria horren aurka borrokatzeko aski baliabiderik jartzen; "paperik gabeko" estatusa hartzen duten hamaika mila emakume, legezko kontraturik egin ahal ez diezaieten, edo artatuak izan ez daitezen, edo salaketarik aurkez ez dezaten; komunikabideek kaleratzen dituzten emakumeen irudiak, sexugale maskulinoaren gustuko itxura estetikoa dela-eta, kontsumitzeko objektutzat agertzen dituztenak... Eta zerrendak jarrai....

**Indarkeria matxistaz modu bakar eta isolatuan** ari bagara, maltratatzaillearen inguruko pentsaera sozial komun erabat lerrokatua indartzen ari gara, kasu berezi eta zehatzak balira bezala irudikatuz, aiseago justifikatuak (alkohola, eromena, e.a.) eta zio nagusi dena, hots, **zapalkuntza heteropatriarkalaren sistema** ikusezin bihurtzen da.

Heteroaraua patriarkatuaren ezarpenaren zati bat da eta hori hausteak bazterkeria eta zigor soziala ekartzen ditu. Gizon-emakume binomioa eta sexu-genero-sexualitatearen arteko harreman naturalizatua sistema patriarkalaren aginduak dira; hortaz, gure desio eta gorputzak heteroarautik kanpo kokatzen direnean, ezarritako feminitatearen moldeetan sartzten ez garenean, handiagora (ematxar, maribero, emagalduta, e.a.) edo txikiagora joz (mari-gizon, talo pala, e.a.), zigorra modu anitzetan agertzen da.

Orobat, gizonaren irudikapenak babestua egoteko "pribilegioa" ez izateak (anaia, gizonaia, senarra, aita izan) haien begien aurrean ahul egiten gaitu eta gure gorputzak eta desioak lurralde kolonizagarri bihurtu.

**Euskal herriko mugimendu feminista. Abenduak 17rako testua**

Azaltzen ari garen sexu indarkeria errotik ezabatzeko, polizia- eta epaile-neurri zigortzaileez gainera, gure talde eta erakundeetatik honakoak bultzatzen ditugu:

- **Autodefentsa feminista:** Bakarka edo taldeka, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka jarduteko modua da, ahalduntzeko era bat, "babesle" deituriko legeek arrandiaz erakusten duten etengabeko biktimismotik urrun.
- **Emakumeen arteko elkartasuna:** Emakume bati eraso egiten diotenean, denok erasotzen gaituzte. Mugimendu feministak emandako erantzun kolektiboak indarkeriaren kasu isolatuak azaltzen ditu eta aurre egiten die, orduan taldearen, genero eta elkartasun kasu bihurtzen baitira, gure borrokan erantzuna eta aterabidea aurkitzen baitituzte.
- **Kalea hartzea.** Izan ere, kalea gurea ere delako. Emakumeek espazio guztiak hartzea ezinbestekoa da. Nonahi, noiznahi, nolana, bide eta espazio guztietan, guk libreki mugitzeko eskubidea galdatzen dugu.
- **Lehentasuna, indarkeriari aurrea hartzea:** Hezkuntza publiko, laiko, kalitatezko, ez sexistak, integraletik, soilik birsortzen ahal dugu berriro emakumeen irudizkoa, genero roletatik at, horrela patriarkatuari aurre egiteko. Arlo honetan komunikabideek ere funtsezko eginkizuna dute, indarkeria sexistaren azalpena ez baita pasatzen morbo programetatik, ezta Estatu ahalguztidunari laguntzak arrenka eskatzen dizkioten babesik gabeko emakume biktimizatuak agerraraztetik ere. Komunikatzeko eredu horiek aldatzeko lan egiten dugu, emakumeen ohiko rol gutxiagotua mantentzen laguntzen baitute eta horrela sexu eraso gehiagorako bidea ereiten dute.
- **Balio eta eredu berriak.** Bikote harremanetako sexu indarkeriak gure agintarien eta beren aparatuen kezkarik handienak sorrarazten ditu, zauri larriak edo erailketak sorrarazten dituenen. Eraso horien oinarrian familia patriarkalaren instituzionalizazioa eta Eliza katolikoak sagaratu eta aldareetara jaso izana daude. Gure aldarrikapenen gunean beren ikusmoldeak, sinesmenak eta iruzurkeriak etengabe salatzea dago, gure aldarrikapenek pertsona libreen arteko harremanak, familiaren eta ondorengoan loriarako ezarritako araudi heterosexualetatik at daudenak, planteatzen baitituzte.
- **Erakundeek zeregin handia dute indarkeriaren aurkako borrokan.** Emakumeen bizi baldintzak hobetuko dituzten kalitatezko neurriak eta baliabide askiak galdatzen ditugu. Bereziki, sexu erasoetarako garrantzizko neurri leungarriak har ditzaten, arestian aipatutako ezinbesteko prebentzio neurriez gain.

Emakumeen aurkako indarkeria egoera etengabekoaren aurrean, **gure pentsamenduan darabilten hiru ideia** azpimarratu nahi ditugu:

- ⤴ Eraso sexistak ez dira **egoera edo zorigaitz pertsonalen kasu isolatuak**. Berriro azpimarratzen dugu erantzun integral eta mobilizatzailea eskaintzeko erantzukizun kolektiboa, bereziki mugimendu feministak izan beharrekoa.
- ⤴ **Emakumeok, bakarka eta taldeka, defendatzeko** eta sexu eraso eta indarkeriari **erantzuteko ahalmen eta gaitasuna ditugu**. Kanean, esparru publikoan zein pribatuan, libre sentitu nahi dugu.
- ⤴ Egoera oso larria da eta **berehalako erantzunak** galdatzen ditu, **ez hargatik sakontasun gutxiagokoak edo ez horren erradikalak**. Sexuen arteko botere harremanak erabat aldatuko dituzten egiturazko aldaketak galdatzen ditugu, alajaina. Eta horrek, dudarik gabe, eredu politiko, ekonomiko eta ideologikoan aldaketa eskatzen du.